

# **Debabarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

**ehbildu**

## 1. Sarrera

Ondoren aurkezten dira Eusko Legebiltzarrak antolatu duen Debabarrena Suspertzeko Ponentzian EH Bilduk egoki ikusten dituen ardatzak eta horien inguruan bultzagarri irizten dituen proiektuak, besteak beste.

Eskualdeko hainbat eragile igaro da Ponentziaz, publikoak eta pribatuak, eta egoeraren argazki kezkarria osatu dute.

Adierazle esanguratsu askotan, esate baterako pobrezia maila, langabezia, enpresa galera kopurua, azpiegiturak, komunikazio erraztasunak, emakumeen laneratze maila, etxebizitza kalitatea, oker gaude, Euskal Herriko batezbestekoetatik atzerago. Beste bakan batzuetan egoera ona dugu, hala nola hezkuntza eskaintzan (bi zentro EHUren graduak eskaintzen, bost ikastetxe lanbide heziketan eta batxilergorako institutu batzuk) eta ikerketa gaitasunean (bi zentro teknologiko: Tekniker eta Ideko).

Eskualdeko egitura ekonomikoak industrian du bere indargunea, beraz, Ponentziak balio beharko luke eskualdeak dituen indarguneak sendotu eta oker gauden arloetan hobekuntzak eragiteko. Lehen ildoak, indarguneak sendotu alegia, funtsezkoa da bigarrena epe luzean jasangarri izan dadin, akatsa bailitzateke Ponentziak bideratutako dituen baliabide ekonomiko eta instituzionalak egitasmo puntualetara bideratzea epe motzean, epe luzeko garapenari eutsiko lioketen proiektuen kaltetan.

Zentzu horretan, EH Bildu ados dago Debegesak (eskualdeko garapen agentzia) Ponentziara igorri zuen txostenean ekintzarako proposatzen zituen bederatzi lerro estrategikoekin: gobernantza eredia berritu; berrindustrialteza; kalitateko enplegua eta aukera berdintasuna sustatu; hirigintza zahar berritu; turismo eskaintza hobetu; eredu energetikoa aldatu; baliabide natural endogenoak aktibatu; auto pribatua gutxiago erabiltzeko alternatibak eskaini eta eskualdeko ingurugiro kalitatea hobetu.

Baina gure ustez bada beste lerro bat aintzat hartzen ez dena, zaintzarena alegia. Dena den, lerro estrategikoak hitz bilduma bat baino ez dadin izan, proiektu zehatz bihurtu behar dira, aldaketa errealak eragin behar dira. Eta zehaztapen horietan da une honetan eztabaida. Ondoren aurkezten ditugun proposamenak eskualdeko bizilagunen aukera errealak hobeak izan daitezten egiten dugun ekarpenak dira.

Jakina, ezinezkoa da ildo guztiei berdin erantzutea, Ponentziak aktibatuko duen diru kopurua nahikoa izango ez delako. Lehentasunak ezarri beharra dago ezinbestean. EH Bilduren iritziz, premiazkoak diren ekintza batzuk eta luzera funtsezko hobekuntzak ekarriko dizkiguten beste batzuren arteko oreka bilatu behar dugu eta hori horrela izan dadin, egiturazko aldaketak eragin behar dira.

Gure ustez, pobrezia aurre egin, lan aukerak ugartu, lanpostuen kalitatea hobetu eta bizi kalitatea goratu luketen proiektuak lehenetsi beharko lirateke. Ildo horretan, industria, laneratze aukerak, mugikortasuna, zaintza eta hirigintzaren inguruko proiektuak lehenetsiko genituzke.

Beste gai garrantzitsua, egitasmoak zuzendu eta gauzatuko lituzketen subjektuena dugu. Badira gauza batzuk eragile indibidualek, enpresek, hezkuntza zentroek edota udalek zuzendu eta koordinatzen direnak, baina Ponentziak ziurtatu beharko luke esparru espazial mugatuetara bideratutako proiektuez gain (auzo bateko zaharberritzea, adibidez) eskualdea bera, bere osotasunean hartuta, onuragarri bihurtzen dituen proiektuak ere proposatzen direla. Horretarako, gainera, subjektu egokia dugu inondik ere: Debegesa garapen agentzia. Honen funtziorik garrantzitsuenen artean, eskualdearen egiturazko oreka bultzatzea baitago.

Orain artean esandakoa bilduz, EH Bildun uste dugu Ponentziak bultzatuko dituen proiektuek epe motzeko zein luzekoak behar dutela izan, egitura sozioekonomikoa eraldatu eta eguneratzeko balio beharko dutela, subjektu indibidualen eta kolektiboen papera indartu eta adierazle garrantzitsuak aldaraztea ekarri beharko luketela.

Buruan, pertsonen, eskualdeko bizilagunek, antzeman beharko genuke Ponentzia izan dela eta gure eguneroko zein etorkizuneko bizimodua hobetze bidean dela, beti ere eskualdean bertan errotze aukerak ugartuz. Adibide bat ematearren, mugikortasuna hobetzeko proiektu batek biztanle guztiengan eragingo luke, eskualde barruko mugimenduak eta beste lurraldeekiko loturak hobetzean, bizi kalitatea hobetzeaz gain eragin ekonomiko positibo esanguratsua lortuko litzateke eta.

Ondoren, beraz, EH Bilduk une honetan bultzatzeko prest dagoen proiektu batzuk laburtu ditu. Horietako bat Elgoibarko IMHK bultzatutakoa da eta beste laurak udaletatik eta Debegesatik bideratu beharko liratekeenak.

Ezin bukatu esan gabe proiektu hauek Ponentziaren lanen egungo egoerari erantzuten diotela eta aldaketak egiteko prest gaudela eragile guztiek beren asmoak argitaratu ahala. EH Bildu prest da, jakina, beste guztien iritziak aintzat hartu eta adostasuneko proiektu bilduma bat babesteko. Beti ere garapen sozioekonomikoa, ekitatea, herrien arteko oreka eta muturreko ezberdintasun sozialen murrizketa buruan.

## 2. Ardatz eta proiektu proposamenak

PROIEKTU GOI-BURUA	ZERGATIK PROIEKTU HAU? DIAGNOSTIKOA	PROIEKTUAREN OINARRI NAGUSIAK	PROPOSAMEN ZEHATZAK	ERAGIN-GUNEA
<b>Industria 4.0</b>	<p>Eskualde nagusiki industrialia da gurea: BPGaren erdia baino gehiago.</p> <p>Makina-erreminta eta automoziorako egiten da lan nagusiki, hegazkingintzan eta kimikan zerbait. Ekoizpena nazioartekotuta dago, asko saltzen da atzerrira. Egoera okertzen ari da ordea eskualdean azken urteetan. 2020 tik-2021era adibidez %22ko enpresa-galera izan genuen, ehundik gora itxi edota beste lurralde batzuetara mugitu dira.</p>	<p>Ematen diharduen gainbehera irauli nahi badugu, behartuta gaude industriaren joerekin bat egiteko, aurreratzeke ahal bada, enplegu berriak sortzekotan. Eta joera horiek, teknologia berriak sortu eta aplikatzearen bidetik doaz. Baina gure enpresek aplikatu besterik ez balukete egingo, enplegu gutxiago edukitzeko arriskua izango genuke, lanen automatizazioaren ondorioz. Beraz, jarduera berriak sortu beharrean gaude, mundu zabaletik baliabideak ekarri. Egun, industriarentzako zerbitzu aurreratuen alorrak batezbestekoaren gainetik hazkunde tasa dauka eta eskualdeko baliabideak erabiliz, mundu zabalean holako zerbitzuak salduz lanpostu berriak sortzeko gaitasun berria izan genezake.</p>	<p><b>Industria 4.0rentzako formazio, demostrazio eta zerbitzu zentro” bat sortzea.</b> Zentro horretan inbertsio bat egingo litzateke teknologia hauen inguruan: gehitze-fabrikazioa, IoT, datu analitika, sentsorika, adimen artifiziala. Helburu hauek izango litzuzke zentroak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Formazio aurreratua eskaintzeko (IMH –gaian hasita dagoena- eta EHU eragile gisa)</li> <li>· Enpresei demostrazioak egiteko aukerak ematea.</li> <li>· Munduko industriari zerbitzu aurreratuak komertzialki eskaintzea.</li> </ul> <p>Zentro honek gaur egunean eskualdean ikerketan diharduten Ideko zein Teknikerren jarduera osagarrituko luke. Erisonoko (Eibar) eraikin berrirako jarduera osagarria izan liteke, Elgoibarko IMHren egoitzaz gain.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Kalitateko lanpostuak sortu</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualde osoa.</li> <li>· Eragileak: IMHk egin du proiektu bat.</li> </ul> <p>Ondo legoke beste formazio zentro batzuk (EHU, Armeria Eskola...), Ikerketa Zentroak (Tekniker, Ideko) eta enpresa batzuk egitasmoan inplikatu balira.</p>

**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Mugikortasuna</b></p>	<p>Bizi dugun krisi energetiko, ekologikoan garraioa da hobekuntza nabarmenak lor daitezkeen sektoreetako bat. Kontuan izatekoa da garraio sektoreak CO2 isurien ia %30a sortzen duela.</p> <p>Debarrenean pertsonen mugikortasunerako ditugun zerbitzu publikoak aztertuta Ermutik Debarainoko tren zerbitzua eta Mallabitik Ondarrurainoko autobus zerbitzua dira garrantzitsuenak.</p> <p>Trenak Ermutik Eibarrerainoko zatian dauka maiztasun handiena, Elgoibarreraino gutxiago eta are gutxiago Debaraino.</p> <p>Debarrenako tren eta autobus zerbitzu garrantzitsuenetatik kanpo kokatzen da Soraluze; Mutriku eta Mallabi tren zerbitzutik kanpo geratzen direlarik. Debarrena eta Debagoienerako lotura ere hankamotz dago Elgoibartik kostarako herrientzat.</p> <p>Bidegorriari dagokionez Eibar-Elgoibar eta Mutriku-Deba zatia soilik daude garatuta.</p>	<p>Diagnostikoan argi ikusten den bezala garraio publikoan hobekuntza nabariak egiteko moduan dago eskualdea.</p> <p>Bai eskualde barruko zein kanporako zerbitzua hobetu daitekeela deritzogu.</p> <p>Ingurumen zein gizarte kohesioan ekarpen garrantzitsua eginaz.</p>	<p>Proposamen nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· <b>Ermua-Deba tranbia</b> zerbitzua. 10-15 minutuko maiztasunarekin.</li> <li>· <b>Maltzagan gune intermodala</b> eraikitzea. Tren geltokia berreskuratuz, autobus geltoki egoki batekin eta autoentzat zein bizikletentzat aparkalekuak egokituz.</li> <li>· Eskualdeko <b>bidegorri sarea</b> bukatzea. Deba-Elgoibar, Soraluze-Maltzaga eta Ermua-Eibar garatuz.</li> </ul> <p>Proposamen osagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>· Zumaia-Donostia tren zerbitzua Deba-Donostia bihurtzea.</li> <li>· Tranbiaren hezurduratik kanpo geratuko liratekeen Mutriku, Itziar, Mallabi eta Soraluze lanzadera bitartez gerturatzea.</li> <li>· Industria guneetara garraio zerbitzua nola hobetu daitekeen aztertzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bizi kalitatea hobetu. Efizientzia handitu.</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualde osoa.</li> <li>· Eragileak: Debegesak koordinatuta, Udallerriak, Bizkaiko zein Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza.</li> </ul>
-----------------------------	---	---	--	--

**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Auzoguneen eraberritzea (birgaitzea)</b></p>	<p>Debarrenak eraikitako parke zahartua du, eta bertan etxebizitzan zati handi bat 50 urteko antzinatasunera iritsi da edo hortik gertu dago.</p> <p>Horri gehitu behar zaizkio kale batzuen eta goiko auzoen irisgarritasun-arazoak.</p> <p>Era berean, hiriguneetan, batez ere Eibarren eta Soraluzen, erabiltzen ez diren industria-erabilera zaharreko eraikinak daude.</p> <p>Guzti honi energia efizientzian aurrera pausoak emateak duen garrantzia batzen zaio eta energia kontsumoak jaisteko neurriak hartu duten garrantzia.</p>	<p>Errealitate horien guztien ondorioz, eskualdeko eremu jakin batzuk (hirigune historikoak zein auzo degradatuak) erabat birgaitu beharra dago.</p>	<p>Proposamenak:</p> <p><b>1) Auzoen eraberritzea:</b></p> <p>a) Irisgarritasuna bermatzeko eta efizientzia energetikoa hobetzeko egitasmoak.</p> <p>b) Espazioa naturalizatzeko planak.</p> <p><b>2) Birgaitze Bulegoak</b> zabaldu herrietan:</p> <p>a) Efizientzia energetiko zein irisgarritasunerako dauden laguntzak sustatzeko.</p> <p>b) Herritarrei informazioa gerturatutzeko.</p> <p><b>3) Fabrika zaharren birgaitzea:</b></p> <p>a) Sektore ekonomiko traktoreak indartzeko.</p> <p>b) Merkataritza aktibitateak.</p> <p>c) Etxebizitza erabilera</p> <p><b>4) Bazterketa</b> egoeran dauden kolektiboen laneratzea sustatzeko programak, gremio eta langile kualifikatuak izateko.</p> <p>a) Tokiko enpresen espezializazioa energia berriztagarrien inplazazioan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bizi kalitatea hobetu.</li> <li>· Lurralde eremua: Áreas de Rehabilitación y Regeneración identificadas por el Gobierno Vasco. Donde mayormente destacan Soraluze, Eibar, Ermua y Elgoibar.</li> <li>· Eragileak: Udalerrriak, Debegesa eta Eusko Jaurilaritza.</li> </ul>
--	---	--	---	---

**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Laneratzea</b></p>	<p>Gipuzkoako langabezi maila altuena duten bi herriak eskualdean ditugu, Eibar eta Soraluze.</p> <p>Horien parean kokatzen da langabezi portzentaletan Ermua. Gainontzeko herrietan Gipuzkoako batz-bestekotik gertu edota behera kokatzen da langabezi tasa.</p> <p>Emakumeen langabezia gizonezkoena baino altuagoa da herri guztietan.</p> <p>Inoiz lan egin ez dutenen kasua esanguratsua da eskualdean, Gipuzkoako batz besteko datua eskualdeko herri guztiek gairitzen dute. Soraluzen bost pertsona langabetuetatik batek ez du inoiz lan egin eta Mendaron, lautik batek.</p> <p>RGI espedientei dagokienez, lan soldata osatzeko RGI behar dutenen kopuruari begiratzen badiogu, Elgoibarko datuak esanguratsuak dira. Indarrean dauden RGI guztietatik ia %21 lan soldata osatzeko dira.</p> <p>Langabetuen perfilaren kasuan Eibarko datuak aztertuta ondorio</p>	<p>Langabetu perfil jakin honek behar zehatzak eta bereziak ditu lan merkatuan txertatu ahal izateko.</p> <p>Behar horiek Lanbidek ez dizkie asetzen. Lanbideren orientazioak langabetu "normalizatuago" bati erantzuten dio.</p> <p>Langabetu perfil honek lan aktibazioa eta akonpainamendua behar ditu. Bi gako hauek jasotzen dituzten laneratze programek lan txertatzerako arrakasta handiagoa izan ohi dute.</p>	<p>Proposamenak:</p> <p>1) <b>Lan orientazio eta aktibaziorako zerbitzu emango lukeen bulego finkoak</b> sortzea Eibar, Ermua eta Soraluzen.</p> <p>a) Debarrenako eskualde osoko herrietan langabetu perfil honi erantzungo dion lan aktibazioa eta orientazioa eskainiko duen zerbitzua izango litzateke, baina arazo larriena dagoen herrietan zentratuz.</p> <p>b) Berezi lanerako aktibazioa landuko da eta akonpainamendu pertsonalizatua eskainiko zaio langabetuari.</p> <p>2) <b>Lan txertatzerako koordinaziorako espazioa</b> sortzea.</p> <p>a) Bertan, Udaleko teknikariek, eskualdeko ikastetxeek, formakuntza zentroek eta lan orientazioko lan orientatzaileek hartuko dute parte.</p> <p>b) Espazio honetan, eskualdeko enpresen beharrak aztertuko dituzte, langabetuen perfilak eta dituzten formakuntza beharrak eta formakuntza bereziak antolatuko dituzte behar horiei erantzun ahal izateko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Langabezia eta pobrezia murriztu.</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualde osoa, batez ere Eibar, Ermua eta Soraluze.</li> <li>· Eragileak: Udalerriak, Debegesa, ikastetxeak, enpresak, Lanbide eta Eusko Jaurlaritza.</li> </ul>
--------------------------	--	---	--	---

**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

	<p>esanguratsuen ondorengoa da (Soraluze zein Ermuan ere antzerako egoera dago):</p> <p>Emakumezko langabetuen %40ak ez dauka derrigorrezko ikasketarik eta gizonezkoen kasuan, %33ak ere ez.</p> <p>Emakumeen %56a iraupen luzeko langabetua da, gizonezkoen kasuan %50a.</p> <p>Herritartasun atzerritarra duten langabetuak %26 dira emakumeetan eta %22 gizonezkoetan. Gain errepresentazioa ikusten da, biztanleriaren %10a dira eta.</p> <p>Deigarria ere, emakumezkoen %64ak eta gizonezko langabetuen %53ak kualifikaziorik gabeko lanak eskatzen dituztela.</p>			
--	--	--	--	--



**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Zaintza</b></p>	<p>Eskualdeko biztanleen %25a 65 urtetik gorako zen 2021ean. Datozen urteetan portzentai horrek igotzen jarraituko duelarik.</p> <p>Hainbat erronka dakartza bilakaera horrek berarekin, tartean zaintza sektoreak hartuko duen dimentsioa.</p> <p>Gaur egunean residentzia, eguneko zentru eta etxez-etxeke zerbitzua ipintzen du administrazioak erabiltzailearen esku. Batzuk zerbitzu publikoak baina asko azpikontratatuta dauden zerbitzuak dira. Zerbitzu hauek ez diote modu integralean zainduaren behar eta nahiei erantzuten.</p> <p>Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuez gain etxez-etxe zaintza lan asko egiten da, sarri internen bitartez. Orokorrean lan hauen kondizioak prekarioak izaten dira eta emakume migratzaileek egiten dituzte.</p> <p>Azpimarratzekoa da zaintza lanak (heldu zein umeenak) emakumeen gain erortzen direla. Exzedentzia eta murrizketa gehienak emakumeek hartzen dituzte.</p>	<p>Ikusten da ertz asko dituen gaia dela zaintzarena. Orain arte egin den bidean badaude argiak baina ilunak ere nabariak dira.</p> <p>Erronka bezala zaintza eredu berriak pertsonaren nahi eta desioetan oinarritu behar luke, pertsonaren bizi-proiektuan hausturarik ez eraginez ahal den neurrian, bizitza duina ahalbidetu ahal izateko.</p> <p>Horretarako zaintzak eman beharko dira bai zerbitzuen integritasunetik bai eta pertsona bakoitzarentzat egokitutako ibilbide pertsonalizatuekin.</p> <p>Zaintzaren ikuspegi berri honek berrantolaketa oso bat behar du berarekin. Lan-baldintza duinak bermatuz ipar argi batekin: Genero, arraza, jatorri edota klase aldagaiek ez dute zaintza-lana zeharkatu behar.</p>	<p>Gipuzkoako Diputazioa eta gipuzkoako hainbat udalek egiten diharduten bideari jarraiki, Debarrenean ematen den <b>zaintza zerbitzua berdefinituko lukeen plan estrategiko</b> bat diseinatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Bizi kalitatea hobetu. Kalitateko lanpostuak lortu.</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualde osoa.</li> <li>· Eragileak: Udalak, Diputazioak, sektoreko langileak, zainduak eta familiarrak.</li> </ul>
-----------------------	--	---	---	--

**Debarrena Susperterako Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Akuikultura</b></p>	<p>Debarrenaren garapen eta indar guztia barnealdeko herrietan ez zentratu eta eskualde oreka bermatzeko helburuz inportantea da kostako herrietan ere ildo bat jorrateak.</p> <p>Horrekin batera, akuikulturak etorkizuneko ekonomia sektore moduan nazioartean hartua duen garrantzia ikusita, elikadura burujabetzaren gaiak herri garapenean duen zentralitateaz jakitun eta hau sustatzeko Mutrikun dagoen Kardala Lanbide Heziketako Ikastetxe Integrala eta Mijoa industria gunea kontutan hartuta, ezinbestekoa deritzogu Debarrenako ponentziatik aterako den proiektuetako bat akuikulturaren inguruko poloa izatea.</p> <p><b>AKUIKULTURA:</b> Akuikulturaren bilakaera eta hazkuntza mailak oso handiak izaten ari dira eta bilakaera honek jarraitu eta indartuko direla aurre ikusten da. Modu horretan, duela mende erdi sortutako sektore bat izan arren, egun, ohiko arrantzak baino garrantzi handiagoa du</p>	<p>-Akuikultura etorkizuneko sektore bezala finkatu eta indartu.</p> <p>-Elikagai sorkuntzan aurrera pausoak eman</p> <p>-Akuikultura sare eta azpiegitura (ur bonbak, oditeri sistemak...) eta teknologien diseinuan eskualdeko makina erraminta enpresekin merkatu nitxo berriak aztertu.</p> <p>-Akuikultura eta arrantza Euskadi 2020 Plan Estrategikoa garatu.</p> <p>-Gipuzkoan indarra hartu duen industria farmazeutiko eta bio teknologiko sarean integratu eta lan egin.</p> <p>Goi-mailako erakundeak akuikulturari Bide guzti horretan, Mutrikuk leku garrantzitsua izan dezake sortzen ari den etorkizun horretan, horretarako hainbat zume garrantzitsu baititu:</p> <p>- Kardala LHII Institutua: ezagutza eta oinarritzko prestakuntza edozein garapenerako.</p> <p>- Ur-xafla kanpoko dikearen babesean: ikerketa aplikaturiko aukera. - Mijoaiko industrialdeko pabiloiak: Mutrikuko industrialdeak itsas bokazioa du, bertan</p>	<p><b>Akuikultura poloa sortzea.</b> Garatu beharko litzateke ondorengo ildoak jorratez:</p> <p><b>Mijoa industriagunean</b> polo edo NODOa sortu:</p> <p>1) Akuikulturako eskola bertan jarri.</p> <p>a) Mutrikun den akuikultura eskola bakarra da Kantauriko Golkoan. Formakuntza eta sektoreak ezinbestean behar dituen ikasle eta etorkizuneko profesionalak heziz.</p> <p>b) Azpiegitura, hodiak... eraman</p> <p>c) Eraikin eta beharrianak identifikatu (proiektua)</p> <p>2) Ikerketaren arloko lankidetzaren bultzatzea.</p> <p>a) Sektoreak bizi duen hazkuntza kontutan hartuta ikerketaren bidez etorkizuneko bideak lantzeko gunea sortuko da.</p> <p>b) Zentzu horretan, akuikultura sektorea Euskal Herrian garatzeko ildoak jorrate beharko da. Alde batetik gure kostaren izaera kontutan hartuz eta bestetik gure erreka eta ibai eta barnealdeko orografia kontutan hartuz, barnealdean garatu daitezkeen ildoak aztertuz.</p> <p>c) Bestetik, akuikulturari loturiko zerbitzu sektorea garatzeko Debarrenako ezagutza eta industria ehunak eskaini ditzakeen aukeren lanketa eta garapena sustatzeko espazioa izango da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Azpiegitura ekonomikoak sendotu. Dibertsifikazio ekonomikoa handitu. Lanpostu berriak sortu.</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualdeko kosta eremua.</li> <li>· Eragileak: Arrantza eskolak badu proiektu bat.</li> <li>· Laguntzeko beste eragile batzuk: Kostako udalerrriak, Debegesa eta Eusko Jaurlaritza.</li> </ul>
---------------------------	--	---	---	--

**Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

		<p>finkatutako industriaren zatirik handiena arraina eraldatzeko industria baita. Pabiloi batzuk ez dira erabiltzen eta akuikulturarekin lotutako jarduerak egin daitezke bertan. Espazio hauek, akuikulturaren ekoiztutako produktuen transformaziorako edota merkaturatzearekin loturiko proiektuak garatzeko gune interesgarriak izan daitezke.</p>	<p>d) Azkenik ,egun arrainen eraldaketa, akuikultura, farmazia edota bestelako enpresek behar izaten dituzten ikerketa eta laginketarako espazioak ere eskaintzeko dira.</p> <p>3) Ekintzailletza-zentroak sortzea (Hazitegiak).</p> <p>a) Akuikultura eskola zein ikerketatik garatu, indartu eta sortu daitezkeen proiektuak sustatu eta garatzeko gunea. Beste sektore batzuetan sustatzen diren hazitegien modukoa.</p> <p>4) Enpresa-zentroen kokapena: Mijoa.</p> <p>a) Akuikulturaren inguruan dauden eta sor daitezkeen enpresa, industriaren sustapena eta sektorearen masa kritikoa handitu eta indartzeko poloa garatu. Mutriku akuikulturaren polo bilakatu behar da, erreferente. Eta horretarako Mijoa industriagunea izan daiteke gune egokia.</p> <p>5) Gizarteari akuikulturaren sektorea ezagutaraztea.</p> <p>a) Sektorea eta Polo guzti honek ezinbestean gizarteari egin eta eskaintzen dionaren berri eman behar du. Horretarako, herritar, eskolako haur zein turistei begira zentroak espazio dibulгатibo bat izatea proposatzen da.</p>	
--	--	--	--	--

**Debabarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak**

<p><b>Nekazaritza-basogintza</b></p>	<p>Gure orografiak, lurraren zaintza zailtzen du. Mekanizazio eskasa eta eskulan asko. Jende asko bizi zen baserrietan ustia ketaren hegal guztiak estaltzeko. Gaur egun, jende gutxi eta zahartua bizi da, askotan gai ez dena baserria bere osotasunean kudeatzeko. Erreleboa eta lurraren transmisioan asmatzea ezinbestekoa izango da lehen sektorearen potentzialtasuna berrasmatzeko.</p> <p>Zorionez geroz eta jende gehiago ari da harremanak saretzen elikaduraren inguruko esparruekin, bai bertako/ekologiko elikagaiez hornitutako menuak eta jantokiak eskatuz, baita kontsumo taldeak sortuz bertako baserritarrekin harreman zuzenak eraikiz eta antolaketa- plangintzak elkarlanean pentsatuz. Eskaera handitzen doa eta gehiago handituko da, elikagaien nazioarteko merkatuak erakusten dituen ziurgabetasunak, gure elikadura sistema sostengaezin honetan eragiten joango den heinean.</p>	<p>Elikaduran eman behar den errotiko aldaketa gauzatzeko, elikadura burujabe eta kontzientea helburu, urte gutxitan aldaketa sakonak egin beharko ditugu. Horretarako ezinbestekoa izango da proiektu anitzak martxan jarri eta frogatzea. Zaila izango da lehen kolpean lanabes egokiarekin asmatzea, baina ekinbide berritzaileak ez baditugu martxan jartzen, jai daukagu.</p> <p>Lurraren jabegoaren araberako lursail kopurua oso sakabanatuta dago. Zatiketa honek, gero eta beharrezkoa den kudeaketa amankomunaren beharra areagotzen du. Basogintzan oso nabarmen identifikatzen den arazoa izanik, Mendietako Foru Arauak animatzen du lursail desberdinen arteko Kudeaketa Planak egitera. Zergatik ez larre zein baratzeekin? Kudeaketa eta jabegoa ez dira zertan esku berdinean egon.</p>	<p>Ondorengo ezaugarriekin <b>proiektu piloto bat</b> abiatu.</p> <p>Gutxienez hiru <b>baserrien arteko antolaketa komunak bultzatu basoa, ortua eta larreak kudeatzeko.</b></p> <p>Zer beharko litzateke horretarako?</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1) Gaur egunekoaren diagnostiko zehatz bat egin.             <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Baserrietako azalera produktiboa neurtu. Baso, larre zein ortu/negutegi.</li> <li>b) Baserri ustiaketa eta transmisioaren egoerak jasoz.</li> </ol> </li> <li>2) Jasotako datuen laguntzarekin proiektu pilotoa abiatu:             <ol style="list-style-type: none"> <li>a) Parte hartuko luketen pertsona zein ustia ketak identifiaktu.</li> <li>b) Parte hartzaileentzat formakuntza.</li> <li>c) Ekoizpenaren eta zerbitzu ekosistemikoen balorazioak egin. Beharrezko azpiegituren kuantifikazioa. Lanpostuen profilak eta kopurua determinatzea.</li> </ol> </li> <li>3) Sistema estandarizatu.</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>· Lehen sektoreko efizientzia handitu. Landa eremuaren aukera ekonomikoak ugaritu.</li> <li>· Lurralde eremua: Eskualde osoa.</li> <li>· Eragileak: Udalak, Debemen, Diputazioak, Jaurlaritza, baserritarrak eta kontsumitzaile talde antolatua.</li> </ul>
--------------------------------------	--	--	---	--